

## Montehermosok proiektu artistikoentzako eta EHUko ikasleentzako deialdiak ebatzi ditu

Montehermoso kulturuneak bi deialdi ebatzi ditu: proiektu artistikoentzako bosgarren edizioa, aurtengo otsailean aurkeztutakoa, eta Arte Ederretako fakultateko ikasleentzako deialdia, zeina EHUrekiko hitzarmenaren emaitza baita.

Proiektu artistikoentzako deialdiaren xedea da arte garaikideko proiektuen produkzioa erraztea, proiektu horiek zabaltzea eta bertako eremuko artistak erakustea. Deialdiaren bitartez produkzio aurreko edo produkzio prozesuan daude sorkuntza artistikoaren proiektuak aukeratzen dira, eta horiek Montehermoson aurkezten dira bertako ikus-entzunezko programazioaren zati gisa.

Aurtengo deialdiak berritasun bat zuen, aukeratutako hiru lanei ikus-entzunezko laugarren bat gehitu baitzaie, eta horrek ere 6.000 euroko laguntza jasoko du. Orotara 82 proiektu jaso dira (aurreko edizioan baino 20 gehiago), horietako 10 ikus-entzunezkoak.

Lan hauek hautatu dira:

- “Una película y una historia”, Belén Cerezorena. Ikus-entzunezko eta kanal anitzeko instalazioa da, eguneroko gaiekiko (janaria prestatzea, jatea, maitasuna,...) esperientzia erreal/zuzenarekiko konpromisoan oinarritua.
- “Transmutación 11”, Anabel Quincocesena. Arte instalazioak baliatuz (beirazko eskulturak, bideo-sorkuntzak, soinuak eta argiak) azpimundu bat sortuko du ur-biltegian. Artistak Daniel Castillejoren laguntza izango du erakusketa garatzeko.
- “Res-incierta”, Nuria Pérez-Carcamoren. Irudien poetika eta dialektikaren bitartez harreman kontzeptual berriak sortzea da helburua. Argazkiak izango dira proiektuaren abiapuntua. Harremanak sortzeko eta kontakizun bat eraikitzeko balioko dute, lan egiteko formatu hurbil eta erraz batean.
- Ikus-entzunezkoa: “Orbainak”, Jorge Moneo Quintanarena. Euskal Herriko paisaia da protagonista; hori irudikatzen duen modu ezberdinak aztertuz, ikerketa etnografikoa eta diskurtso kritikoa landu nahi ditu jardun artistikoaren bidez.

### Arte Ederrekiko hitzarmena

Arte Ederretako ikasleentzako deialdian, berriz, Montehermosok eta EHUk sei proiektu aukeratu dituzte. Horiek 600 euroko laguntza jasoko dute, eta ondoren erakusketa eta zabalkundea egingo da, Iker Hidalgo, Laura Díez eta Irati Irulegi komisarioak direlarik.

Guztira 23 proiektu aurkeztu dira, eta hauek dira hautatuak:

– **“Teresa”**, Luz Estefanía Hierrorena. Margogintzaren lengoaiarekin lotutako alderdiak lantzen ditu, bai eta lengoaiatik kanpo dagoena eta prozesuak uzten dituen hondakinak ere, pintura-pintura deritzon erregistro batean.

– **“Colador. Un manifiesto de dudas y orificios”**, Estela Miguel Bautistarena. IZAN/IRUDIKATU binomioan oinarrituz, artistak azala eta zuloa aukeratu ditu kanpoaldearen paradigmaz, eta zeramika eta piezen mihizatzea baliatuz, eta testuinguruarekin eta desioarekin jokatzuz, gailu batzuk sortu ditu; horrela, erabaki politikoek etxeko eremuan era sotil eta ia ikusezinean islatzen direla erakutsi nahi du.

– **“Bratstvo/Jedinstvo”**, Eriz Moreno Arangurenena. Proiektuaren izena eta arrazoia “Bratstvo / Jedinstvo”, hots, “Senidetzea eta batasuna” izeneko autobidea da, Yugoslaviako soviet errepublika federalean eraikitakoa, 1180 kilometrotan federazioa osatzen zuten sei eskualdeak batzeko; hain zuzen ere, Yugoslaviako lema nazionala zen hori. Artistaren helburua ez da erakusketa historikoa egitea, baizik eta *road-trip* baten bidez elementu historikoak eta egileak lurraldean duen esperientzia propioa integratzea lan artistikoan, historiaren eta sorkuntzaren arteko oreka mantenduz.

– **“Dtrnmnt”**, Javier Rodríguez Pérez-Curielena. Artistak parkimetroetako txartelak erabiltzen ditu, baina jatorrizko erabileraz gabetzen ditu, eta horien bidez bere eguneroko jarduna islatzen duten irudiak, testuak, aipuak eta erreferentziak eraikitzen.

– **“Verdin en las rodillas/ Lirdinga belaunetan”**, Uxue Ruiz de Arcauterena. Eskultura instalazioa da, “barrualdea” vs. “kanpoaldea” eta “basatia” vs. “otzana” ideiak erlazionatzen dituen; horietatik abiatuz, artistak espazio berriak eraikitzen ditu.

– **“Hacerse el sueco”**, Álvaro Talaverarena. “Hacerse el sueco (2016-2017)” lanak liburuak apaingarri gisa erabiltzeak sorrarazten dituen paradoxak jartzen ditu agerian. Ekintzek nolabaiteko desoreka sortzen dute ohikotasunean, eta durduzatu egiten dituzte tartean diren pertsonak, ezarritakoa apurtzean.

Lanak uztailearen 13tik irailaren 3ra arte erakutsiko dira.

Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estíbaliz Cantok nabarmendu duenez, *“hautatutako proiektuak erakusketa-programaren barruan txertatzean, Montehermosotik profesionalizatzeko bidean dauden sortzaileen lanak ikustarazten laguntzen dugu, beren ibilbiderako lan-plataforma garrantzitsua eskaintzen baitie”*.

## Montehermoso resuelve la convocatoria de proyectos artísticos y los de alumnado de la UPV-EHU

El Centro Cultural Montehermoso ha resuelto la convocatoria presentada en febrero de este año por la quinta edición de la convocatoria de Proyectos Artísticos así como la convocatoria para el alumnado de la Facultad de Bellas Artes fruto del convenio firmado con EHU-UPV.

El objetivo de la convocatoria de Proyectos Artísticos, es facilitar la producción de proyectos de arte contemporáneo así como su difusión y exhibición de artistas del contexto local. Mediante la convocatoria, se seleccionan proyectos de creación artística que estén en proceso de pro-producción o producción y se presentan en Montehermoso como parte de su programación audiovisual.

La novedad en esta edición, es que a las tres obras seleccionadas se une una cuarta audiovisual por importe también de 6.000 euros. Se recibieron 82 proyectos (20 más que la edición anterior), de los cuales 10 eran audiovisuales.

Las obras seleccionadas han sido:

- Una película y una historia, de Belén Cerezo. Un proyecto que consiste en la realización de una instalación audiovisual multicanal que se fundamenta en un compromiso con la experiencia real-directa con temas cotidianos (cocinar, comer, el amor...).
- Transmutación 11 de Anabel Quincoces, trata de la creación de un submundo a partir de instalaciones artísticas, en el espacio expositivo, del Depósito de Aguas, formadas por esculturas en vidrio, video-creaciones, sonidos y sistemas lumínicos. La artista cuenta con Daniel Castillejo para el desarrollo del planteamiento expositivo.
- Res-incierta Nuria Pérez-Carcamo, trata de construir nuevas relaciones conceptuales a través de la poética y la dialéctica de las imágenes. Las fotografías son, por tanto, el punto inicial del proyecto. Estas sirven para establecer diferentes relaciones y construir un relato en un formato cercano y sencillo sobre el que trabajar.
- Audiovisual: Orbainak de Jorge Moneo Quintana, que tiene al paisaje vasco como protagonista, plantea la práctica artística junto con la investigación etnográfica y el discurso crítico, explorando diferentes modos de representar el paisaje vasco.

### Convenio con Bellas Artes

Respecto al convenio para la convocatoria de alumnado de Bellas Artes, Montehermoso y la UPV-EHU han seleccionado seis proyectos que recibirán 600 euros para su producción y así como la posterior exposición y difusión bajo el comisariado de Iker Hidalgo, Laura Díez e Iratí Irulegi.

Se presentaron 23 proyectos de los cuales los elegidos han sido:

– **Proyecto: “Teresa”** Luz Estefanía Hierro. En esta propuesta la artista trabaja las cuestiones que tienen que ver con el lenguaje pictórico, pero también con lo que está fuera de este lenguaje y con el residuo que deja el proceso en un registro calificado como pintura-pintura.

– **Proyecto: “Colador. Un manifiesto de dudas y orificios”** Estela Miguel Bautista. Desde el binomio SER/PARECER la artista elige la piel y el orificio como paradigma de lo externo, creando unos dispositivos desde la cerámica y a través del ensamblaje, desde el contexto y el deseo, planteando cómo las decisiones políticas se proyectan en lo doméstico de manera sutil y casi imperceptible

– **Proyecto: “Bratstvo/Jedinstvo”** Eriz Moreno Aranguren. El nombre y el motivo del proyecto (Bratstvo / Jedinstvo) provienen de la Autopista “Fraternidad y Unidad”, una autopista construida en la República Federal Socialista de Yugoslavia para conectar, en sus 1180 kilómetros, las seis regiones constituyentes de la federación, su nombre hace referencia al lema nacional yugoslavo. El objetivo del artista no es realizar una muestra histórica, sino la de experimentar, a partir del road-trip, una forma de trabajo artístico en la que se integren elementos históricos con la experiencia propia del autor con el territorio, manteniendo el equilibrio entre historia y creación.

– **Proyecto: “Dtrnmnt”** Javier Rodríguez Pérez-Curiel. En este proyecto el artista utiliza tickets de parquímetros, despojándolos de la finalidad para la cual fueron creados, y construye con ellos imágenes, textos, citas, referencias que reflejan la actividad diaria del autor.

– **Proyecto: “Verdín en las rodillas/ Lirdinga belaunetan”** Uxue Ruiz de Arcaute. Instalación escultórica en la que se relacionan las ideas “interior” vs “exterior” y “salvaje” vs “domesticado”, a partir de las cuales la artista construye nuevos espacios.

– **Proyecto: “Hacerse el sueco”** Álvaro Talavera. Hacerse el sueco (2016-2017) pone en juego algunas de las paradojas que plantea el uso del libro como elemento de decoración. Se trata, en la mayoría de los casos, de acciones que generan un cierto desajuste en el transcurso de la cotidianidad y desconciertan a todas aquellas personas involucradas, al romper con lo establecido.

Se expondrán del 13 de julio al 3 de septiembre.

La concejala de cultura, educación y deporte, Estíbaliz Canto, ha destacado de todos ellos que *“al integrar los proyectos seleccionados dentro del programa expositivo, desde Montehermoso apoyamos la visibilización de los trabajos de los creadores y creadoras tanto de contexto local como en fase de profesionalización, ofreciéndoles una plataforma de trabajo importante para sus carreras o futuras carreras”*.